

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida

apirila

2016 | 142. zenbakia | udaberria

www.zizurkil.eus

Aurrera Plaza 3 | 20159 ZIZURKIL | 943 692495

PLAZIDA OTAÑO AIZTONDOKO LIBURUTEGIAREN INAUGURAZIOA

INAUGURACIÓN
DE LA BIBLIOTECA
PLAZIDA OTAÑO

Plazida Otaño
AIZTONDOKO
LIBURUTEGIA



Kultura | Enkaria | Irudia
Guzuzen | Herriak

23

ZATOZ ETA EZAGUTU EZAZU BAILARAKO KULTURGUNE BERRIA! ¡VEN A CONOCER EL NUEVO CENTRO CULTURAL DEL VALLE DE AIZTONDO!

11:30ean: Bukalai dantza taldea eta Loatzo musika eskolako musikarien parte hartzearekin gonbidatuei ongi etorria, sarrera hitzak eta luntxa.

Ondoren, Maria Altuna artista zizurkildarraren erakusketaren inaugurazioa.

Gela Balioanitzean, Bailarako eta bertako aktibitate eta bizitzari buruzko etengabeko bideo emanaldia.

13:00etan: Helduei zuzenduriko istorio kontaketa.

14:00etan: liburutegia itxiko da.

16:00etan: 0-5 urte bitartekoentzat ipuin kontaketa.

17:00etan: 6-8 urte bitartekoentzat ipuin kontaketa.

18:00etan: 9 urtetik gorakoentzat ipuin kontaketa.

19:00etan: Jubilatuei zuzenduriko kontaketa.

20:00etan: Itxiera.

gaztelera



www.zizurkil.eus

		1 Gure bolara	2 Irteera OLABERRIAKO KARTINGera	
4 Jolas librea	7 Murala bukatu	8 KATU BELTZ Azokari buruzko hausnarketa	9 ITXITA	10 KATU BELTZ AZOKA
11 Jolas librea	14 Jolas librea	15 Murala zintzilikatu	16 Gure bolara	
18 Jolas librea	21 Jolas librea	22 Gure bolara	23 Plazida Otaño Liburutegiaren inaugurazioa !Ipuin kontaketa"	
25 Jolas librea	28 Jolas librea	29 Asoziazionismoa, kooperatibismoa ZER DA?	30 Gure bolara	

ASTELEHEN ETA OSTEGUNETAN 17:00ETATIK 20:00ETARA LH4-6 MAILAKOAK.

OSTIRALETAN 17:00ETATIK 20:00ETARA 13-17 URTE BITARTEKOENTZAT.

LARUNBATETAN 16:30ETIK 19:30ERA 13-17 URTE BITARTEKOENTZAT.

ZIZURKILGO MUSHING TXAPELKETA:
TXAKUR KROSA eta ERRELEBOAK **CANIKROS**

18:00etatik aurrera Pedro M^a Otaño Plazatik abiatuta.



KZ GUNEA

Tutorías

Tutoritza orduak apirilaren 1 eta 5ean **18:00etatik 20:00etara.**

22

DATORREN URTEAN HOBETO
20:00etan Atxulondon. Prezioa: 3 €

25

BOLI BILI BOLI
11:00etan Atxulondon, HH2-HH5eko haurrentzat

26

BIDAI BIZITZEN
11:00etan Atxulondon. LH1-6ko haurrentzat

28

IKASLEEN EMANALDIA
Zizurkilgo haur guztiei zuzendua, 11:00etan Atxulondon

30

UMOREA
22:30ean Iriarte Kultur Etxean, Juan Cruz Gurrutxagarekin.
"Oraingo honetan niri gertatutako istorioak kontatuko ditut, edo niri gertatu zaizkidala esanez, amatutakoak. Pentsa, ni neu jaio aurretik gertatutako istorioak ere kontatuko ditut. Protoi-istorioa edo pre-istorioa deitu beharko nuke..."

BESTELAKOAK

MERCADILLO DE SEGUNDA MANO

KATU BELTZ BIGARREN ESKUKO AZOKA

9:00etatik 14:00etara Joxe Arregi Plazan (euria eginez gero Otaño Ikastetxeiko frontoian). Izen emateak: 943-057783 edo 619-203058 telefonoan.

EUSKARA ZINE ARETOETARA

8

11:00etan, Lotte2, HAUR HEZKUNTZAko ikasleentzat

15

11:00etan, Jelly T, LEHEN HEZKUNTZAko ikasleentzat

OPORRETAN EUSKARAZerako BEGIRALEAK

SELECCIÓN DE MONITORES PARA EL OPORRETAN EUSKARAZ

6 begirale kontratatuko dira ekainaren 27tik uztailaren 22ra lan egiteko. Deialdian parte hartu ahal izateko derrigorrezkoa izango da:

- Zizurkilgo erroldatua egotea.
- 18 urteak beteak izatea edo 2016 urtean betetzea.
- Euskara ondo menderatzea.
- Elkarrizketa-talde dinamika GAINDITZEA.

Hautatze prozesuak 2 fase izango ditu: **titulazio eta esperientzia atala** eta **elkarrizketa-talde dinamika**. Zuzeneko hartu emanak duen garrantzia azpimarratu nahian 1go faseari %40ko balioa emango zaio eta 2. faseari %60a.

- 1go fasean titulazio eta lan esperientziaren balorazioa egingo da (denbora libreko begirale edo zuzendari titulua, heziketarekin zerikusia duten ikasketak, ikastaro, monografikoak, e.a., esperientzia antzeko lanetan eta langabetu edo ikaslea izatea).
- 2. fasean elkarrizketa-talde dinamika egingo dira. 45 minutuko iraupena izango dute eta baloratuko direnak hurrengo atalak izango dira:

Parte hartzea • Gizarte trebetasunak • Talde lanerako gaitasuna
Euskara maila • Diskurtsoa

Izen emateko epea: apirilaren 22a.
Elkarrizketa-talde dinamika: maiatzaren 6an 18:30ean Pedro M^a Otaño Ikastetxean.